

**“LA NOCHE DE LOS LÁPICES” (1986):
ARGETINAKO DIKTADURAKO GAZTERIA ETA
DESAGERTUAK ZINEAREN BITARTEZ**



Egilea: Ainara Orgaz Velasco

Gradua: Historia

Zuzendaria: Oscar Álvarez Gila

Saila: Amerikako Historia

Ikasturtea: 2017/2018

Ikerkuntzaren helmuga Argentinako 1976-1983. urteetako diktadura garaia jorratzea zen. Zehazki, estatu terrorismoak sortuko zituen ‘desagertuen’ eta gazteriaren arteko harremana landu ahal izatea. Baina ikergaia oso zabala denez, bi gai horiek tratatzen eta antzezten dituen “La Noche de los Lápices” argentinarraren bitartez garatuko dira. Hortaz, lanaren helburua benetako gertaera historikoak tratatzen dituen pelikula baliatuta, Argentinako Berrantolaketa Prozesu Nazionalean (diktadura) burutuko ziren Arkatz Hautsien Gaueko (1976ko irailaren 16a) gertaerak azaltzea izango da, aipaturiko bi gai nagusi horietan arreta berezia jarritz.

Lehendabizi, obra bere testuinguru politikoan kokatuko da, lantzen dituen gertaeren aurrekari politikoak eta diktaduraren amaierako urteak zein estreinu garaiko testuingurua (jada Argentinan demokrazia ezarria zela) aurkeztuz. Atal horretan, diktadura baino lehenagoko gobernu aldaketak azalduko dira, hein handi batean 70. hamarkadan zentratuz. Ondoren, pelikularen analisisa eskainiko da, narrazioaren laburpena eta errealitatea hobekien irudikatzen duten eszenen ikerketa eginez; jarraian, zuzendaria, filmari buruzko datu orokorrak eta herrialdean izandako eragina aurkeztuko direlarik.

Behin marko politikoa eta filmaren azterketa eskainirik, begirada urte horietako gazterian eta militantzia politikoan jarriko da. Horretarako, batez ere 60. eta 70. hamarkadetan, gazteengan oihartzun eta eragin handia lortuz nagusituko ziren adierazpen kulturalak, mugimenduez, joerez eta talde gerrileroez hitz egingo da. Izan ere, momentuko bizitzak eta tentsio politikoak markatuta, errealitateari aurre egiteko bide desberdinak zabalduko ziren gazteen artean. Egoera horrek, bai filmeko protagonistek bai beste gazte askok ondorengo urteetako diktaduraren errepresioa jasan izana ulertzea ahalbidetuko du. Hurrengo pasartean, desagertuen auzia jorratuko da, gobernuak erabilitako metodologiaz gain, krimen horien aurka agertuko ziren ahotsen inguruan arituko da lana. Ostean, ondorengo urteetan, demokrazia ezarrita zegoelarik, gizateriaren aurkako krimen horiek izan zituzten epaiketak aurkeztuko dira.

Idazlanaren edukiari amaiera emateko, ondorioak aurkeztuko dira. Azkeneko atal horretan, filmaren balorazioa eta iritzi kritikoa eskainiko dira, kontakizunaren egiazkotasuna, baliagarritasuna eta zilegitasuna kontuan hartuko direla. Horrez gain, lana egiterako orduan erabilitako iturri bibliografikoak eskuragarri izango dira amaieran.

Hitz klabeak: Argentina, diktadura, gazteria, desagertuak, zinea.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. TESTUINGURU POLITIKOA.....	3-10
2.1 AURREKARI POLITIKOAK.....	4-6
2.2 BERRANTOLAKETA PROZESU NAZIONALA ETA FILMEKO GERTAERAK.....	7-8
2.3 ONDORENGO URTEAK ETA DIKTADURAREN AMAIERA.....	8-9
2.4 FILMAREN TESTUINGURUA.....	10-11
3. “LA NOCHE DE LOS LÁPICES” PELIKULAREN ANALISIA.....	11-17
3.1 LABURPENA.....	11-12
3.2 ESZENA ESANGURATSUENAK.....	12-15
3.3 ZUZENDARIA.....	15
3.4 DATU OROKORRAK.....	15-16
3.5 ERAGINA ETA GARRANTZIA.....	16-17
4. ARGENTINAKO GAZTERIA ETA MILITANTZIA POLITIKOA...17-20	
5. DESAGERTUAK.....	20-23
5.1 TOTALITARISMOA ETA ERREPRESIOA.....	20
5.2 DESAGERTUAK.....	21-22
5.3 ONDORENGO URTEAK: EPAIKETAK.....	22-23
6. ONDORIOAK.....	23-24
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	25-27

1.SARRERA

“La Noche de los Lápices” filma aukeratu izanaren arrazoi nagusia, garrantzia handiko gai historikoa jorratzea, eta argentinar gizartean memoria kolektiboa eraikitzerako orduan izan zuen eragina azpimarratzea eta ulertaraztea izango da. Gainera, historia arloari begira, gertakizun historikoen ezagutza hedatzeko modu desberdina bada ere, baliabide interesgarria eta indartsua bihurtu da zinemagintza. Horrela, xedea gai oso orokorra dena era zehatzagoan aztertzea izango da, filmeko gertaeretan eta gaietan zentratuz.

Lehen esan bezala, lan hau Argentinan kokatzen da, eta 1986ko “La Noche de los Lápices” filma du ardatz; honek gazteria eta desagertuen auzia ditu gai nagusi. Kokapen kronologikoa Aro Garaikidean zentratuko da, 1976tik 1983ra bitartean alegia. Baina ez da soilik tarte kronologiko hori jorratuko, lana ulertzeko, garai berdineko beste epealdiak zein hauek daukaten garrantzia azalduko da. Hortaz, muga kronologikoa XX. mendeko 60. eta 70. hamarkadetan ezarriko da, lanean argentinar testuinguru politikoaz, gazteriaz eta ‘desagertuez’ jardungo baita.

Beraz, aurrekari moduan, Argentinako 60. eta 70. hamarkadetako testuinguru politikoa lantzeaz gain, filma grabatuko zen garaiko testuingurua ere eskainiko da. Jarraian, lanaren muina aurkeztuko da, non, filmaren inguruan jardungo da, horren analisia aurkeztuz. Ondoren, pelikulako gaietan zentratuz joango den heinean, gazteriaren paperan eta desagertuetan gehiago sakonduko da. Azkenik, aztertutako filmaren eta gertaeren ondorioak eta balorazioak aurkeztuko dira, iritzi kritikoarekin batera.

2. TESTUINGURU POLITIKOA

Lan honetan “La Noche de los Lápices” izeneko filmean deskribatutako gertaerak gauzatuko ziren marko politikoa izango da aztergai. Gaiaren zabalera kontuan izanda, aurrekariak jorratzerakoan, idazlana 1973ko ondorengoko urteetan zentratuko da. Beranduago lanaren beste pasarte batzuetan epe kronologikoa ireki egingo da, era zehatzagoan filmak jorratzen dituen gai nagusietan arreta jarritz, hau da, desagertuetan (estatu terrorismoa) eta gazteengan, beraien historian eta testuinguruan, helburu horrekin ahalik eta informazio gehien eskaintzeko. Beraz, pasarte honetan lehendabizi Videlaren diktaduraren aurrekariak eta testuingurua azalduko dira, ostean filmeko gertakizunak azalduz. Azkenik, diktaduraren jarraipena eta amaieraren historia aurkeztuko direlarik. Garaian Argentinak

politikoki bizi zuen egoera ezagutzea beharrezkoa egiten baita ondoren etorriko ziren gertaerak ulertarazteko.

2.1 AURREKARI POLITIKOAK:

1946ko otsailaren 24ean Juan Domingo Perón hauteskundeetan garaipena lortzen zuen, Argentinako presidentea bihurtuz. 9 urtez gobernuaren buru izango zen, 1955eko irailaren 16an Eduardo Lonardi generalaren aginduetara Kordoban emandako altxamendu militarra gailendu zen arte, Iraultza Askatzaileari hasiera emanez (San Martino de Dromi, 1996, 56). Perón-en presidentziaren ondorengo urteetan, Argentinaren historiaren egoera politikoa aztertzerakoan gailenduko den ezaugarria ezegonkortasuna izango da. Diktadoreak, militarrek eta estatu kolpeak jarraitu egingo dira. Azkenengo ideia honek berebiziko garrantzia izango du 1970ko hamarraldian gertaturikoa ulertu ahal izateko.

1955. eta 1973.urteen bitartean, Perón atzerrian exiliaturik egongo da, peronismoarekiko zegoen debekua zela eta. Denbora tarte horretan, lider argentinarra bere gobernuarekin antzekotasunak zituzten Iberoamerikako herrialdetan bizi izan zen. Lehenengo Stroessner-en Paraguan; ostean Pérez Jiménez-en Venezuelan; eta amaieran Batistaren Kubara eta Trujilloren Errepublika Dominikanoan ere izango zen. Argentinak eragindako presioa eta errefuxiatutako herrialdeetan sortzen ziren arazo lokalak zirela medio, 1960ko hamarraldiaren hasieran Espainian finkatuko zen, Francoren diktadura bizi zuenak (Azcona, 2010, 62). Hala ere, egoera irauli egingo da 1972. eta 1973.urteen aldera, Alejandro Agustín Lanusse (1971tik zegoen karguan) militarren gobernuarekin.

- *Lanussen gobernuak: peronismoaren egoera*

1972an Lanussen gobernuak arazo larriak zituen alderdi politikoekin negoziatzeko eta gazteen alderdi erradikalean gertatzen ari zen militante gorakadagatik (“montonerización” bezala ezagutua dena). Egoerak, presidentek Perón-en itzulera onartzera eramango zuen, ezker alderdi independentearen gorakada geldiarazteko eta herrialdea gobernatzen zuen tentsioarekin amaitzeko asmoarekin (Azcona, 2010, 62). Perón-ek laster lortuko zuen enpresa nazionalen elkarteetan eta gazteria erradikalaren babesak, bere herentzia politikoa oinordetzat hartuko baitzituen. Horrez gain, 1972an Gazteria Peronistak antolatuko ziren. Testuinguru horretan, Lanuss-ek 1973rako hauteskunde deialdia egingo zuen. Horietan

baldintza bat ezarriko zuen, zeinaren arabera, hauteskundeetan Perón-en eta bere partaidetza propioa ezeztatuko ziren (Azcona, 2010, 63). Hori dela eta, exilioan egondako liderrak Héctor J. Cámpora eta Vicente Solano Lima izendatuko zituen deialdian peronismoaren ordezkari gisa jarduteko. 1973ko martxoaren 11an Cámporak garaipena lortzen zuen eta garai berria zabaltzen zen Argentinan. Jakina zen jende guztiarentzat horren esanahia, horrela deskribatzen zuen abesti herrikoi batek; “Cámpora al gobierno, Perón al poder” (Gordillo, 2003, 378).

Urteetan zehar, Perón-en irudi erreala sinbolismorantz eraldatuko zen, horrela desnazionalizazioen eta pribilegioen aurkako ikurra bihurtuz, sentimendu nazionalista eta popularrarekin bat egiten zuenak. Batzuentzat horren eskutik antzinako oparotasuna ekarriko zion herrialdeari. Beste batzuek Hirugarren Munduko lider iraultzailatzat hartzen zuten, bere mugimendutik traidoreak ezabatu eta bai gizartea bai nazioa askatasunera gidatuko zituenak. Zenbaitek (mugimenduaren hasierako antikomunismoa miresten zutenek) subertsio sozialarekin amaitzeko beharrezkoa ikusten zuten bere pertsona. Bestalde, bazeuden bakezale amorratua zela uste zutenek ere, eta harengandik gizarte gatazkekin amaitzeaz gain, Argentina berreraiki eta hazkundearen bidetik eramatea espero zuten. Herriak argi zeukan, Perón itzultzea nahi zuen (Romero, 1994, 260-261).

- *Juan Domingo Perón boterean*

1973ko maiatzaren 25ean Cámporak presidentzia eta Solano Limak lehendakariordetza beraien gain hartzen zuten. Gobernu berriaren amaiera azkar gauzatuko zen, urte bereko uztailaren 13an beraien dimisioa aurkeztuko baitzuten (Comisión por los Derechos Humanos, 1977, 15). Presidentzia Kongresuko presidentea zenaren, hau da, Raúl Lastiniren, eskuetan geratuko zen iraileko hauteskundeetan ordezkari berria ezarri arte. Iraileko hauteskundeak, jada 78 urte zituen justizialismoaren liderrak eta Isabel (horrela ezagutzen zuten argentinarrek) bere emazteak irabaziko zituzten botoen %62arekin (Romero, 1994, 269).

1973ko urriaren 12an Perón-ek lehendakari izendatzen zuten hirugarren aldiz, 18 urte ziren jada estatu kolpeak kargutik kendu zuela. Bere gobernuak 7 hilabete besterik ez zituen iraungo, eta epe labur horretako ezaugarriarik nagusiena peronisten arteko barne gatazka izango zen (San Martino de Dromi, 1996, 583). Izan ere, bere joera aldatu egin zen azkenengo hilabeteetan, eskuinera hurbilduz. Lehen gutxiesten zituen “peronista zaharrak”

goraipatzen zituen orain, eta alderantziz gertatuko zen gazteriarekin (Svampa, 2003, 407). Testuinguru horretan eta bere osasun kaskarra zela medio, 1974ko ekainaren 29an, 30 urtez Argentinako protagonista nagusia izan zen Juan Domingo Perón-en heriotza heltzen zen. Horrenbestez, karguan María Estela Martínez de Perón-ek ordeztzen zuen, hau da, bere emaztea zenak (San Martino de Dromi, 1996, 588).

- *María Estela Martínez de Perón (“Isabelita”) boterean*

Lehendakariak martxan jarriko zituen politika berriak, aurretikoekin alderatuz, apurketa eta aldaketa garrantzitsuak biltzen zituen. Bere programaren helburu garrantzitsuenak honako hauek izango litezke: subertsioarekin amaitzea, hezkuntzatik ezkeralderako eragileak ezabatzea, inbertsioak bultzatzea, sindikatuen atxikimendua lortzea eta militarren bermea. Hortaz, gobernu berriaren berezitasun nagusia eskuin-muturrerako joeraren gailentzea izango da, bai alderditik kanpo bai alderdi justizialistean lehendakariarekiko mesfidantza eratzea ekarriko duena (San Martino de Dromi, 1996, 589).

“Isabelita”-ren gobernu krisialdian sartuko zen 1975ean, inflazioak gora egin zuen, eta gobernutik zailtasunak zeuden koiuntura ekonomikoa kontrolatzeko. Krisi ekonomikoak krisi politikoa eragingo zuen. Populazioaren artean atsekabea zen nagusi, ez bakarrik krisi ekonomikoagatik, baizik eta bandoen arteko borrokek eta A Hirukoitzaren (Alianza Anticomunista Argentina) ekintzak sorturiko egoera zela eta, Martínezen gobernuan jarrita zeuden esperantzak deseginez (Romero, 1994, 283). Horrez gain, lehendakariak militarren zein enpresari handien laguntza eta babesa galduko zuen aurrerantzean. Enpresariak horren gobernu erasotzen hasiko ziren. Komandante buru berria zen Rafael Videlak, krisi politiko eta ekonomikoak gobernuaren gainbehera ekar dezan itxaron zuen bere ordezkapena prestatzen zuen bitartean. María Estela Martínez-en gobernuaren erorialdia hurbil zegoela ezaguna zen peronista askorentzat (Romero, 1994, 281-282).

1976ko martxoaren 24an estatu kolpea burutuko da. Indarkeria erabili gabe eta tropak mobilizatu gabe helduko da boterera Junta Militarra, Marinako, Aeronautikako eta Ejertzitoko kapitain generalek osatutakoa (Comisión por los Derechos Humanos, 1977, 22).

2.2 BERRANTOLAKETA PROZESU NAZIONALA ETA FILMEKO GERTAERAK

Baina Argentinan ez ezik, urte horietan Hego-Amerikako berezitasuna bihurtuko zen, hainbat herrialdetan diktadurak eta estatu kolpeak nagusituz. Brasilen, Joao Goulart-en gobernu populista desegingo zuen ejertzitoak 1964ean, demokrazia 1986an helduko zen. Txilen, 1973an Augusto Pinochet-ek estatu kolpea eman eta Salvador Allenderen gobernuarekin amaitu zuen. Eta urte berberean, Uruguain, militarrek demokrazia deuseztatu eta 1985ra arte boterea bereganatuko zuten. Hortaz, Argentinarena ez zen kasu berezia izan nazioarte mailan (Azcona, 2010, 139).

1976ko martxoaren 24an Berrantolaketa Prozesu Nazionala izendapenarekin ezagututako diktadura ezarriko zuten Emilio Eduardo Masserak, Orlando Ramón Agostik eta Jorge Rafael Videlak. Azkenengo hau martxoaren 29an izendatuko zuten presidente, 1981ra arte kargua bereganatuz. Gizartearen zati handi batek begi onekin ikusiko zuen estatu kolpea, gobernu dekadentzian zegoen eta askok demokrazian zituzten esperantzak galtzen ari baitziren (San Martino de Dromi, 1996, 764).

Botere hartzea justifikatzeko ahaleginak egingo zituzten, diskurtso ofizial bat hedatuz; zeinaren arabera, beraien presentzia herrialdean ezinbestekoa egiten zen ordena, segurtasuna, eta moralitatea kontserbatzeko indarkeriaren, korrupzioaren, krisi ekonomikoaren eta kaosaren aurrean. Helburu horrekin, autoritate zibil guztien mandatua deuseztatzea (presidentea barne), kongresua desegitea, legislatura probintzialak ezeztatzea, bizi politikoa eta alderdi politikoak debekatzea, Goren mailako Justizia Gortea osatzen zuten kideak aldatzea, eta azkenik, langileen gremio eta sindikatuak ere debekatzea egongo ziren juntak hartutako lehenengo erabakien artean. Horrez gain, unibertsitateetan esku-hartuko zuten, militarki okupatuz martxoaren 24an eta horietan pentsamolde ofizialetik kanpo geratzen ziren ekintza oro debekatuz (Comisión por los Derechos Humanos, 1977, 23-24).

Videla gobernura heltzerakoan, subertsioaren kontra borrokatzeko “Guerra Sucia” delakoari hasiera eman zitzaion. Hala ere, garrantzitsua da argi izatea terminoak ez duela benetako egoera adierazten, ‘etsaia’ kontsideratzen zenaren suntsiketa gerra testuinguru batean justifikatzen saiatzen baita (Azcona, 2010, 138). ‘Etsaia’ ez ziren soilik borrokalari iraultzaileak eta ideia iraultzaileetako politikari edota sindikalariak. Diktadurak etsaia egoeraz kezkatzen ziren intelektual, zientifiko, gazte, demokrata eta abar kontsideratzen zituen. Baita neutralak edota indiferenteak, ez baitziren militarren ekintzen alde agertzen

(Bravo, 2015, 75). Egoera horretan, ekainaren 25ean, Videlak aldaketak egingo zituen Kode Penalean, heriotza zigorra berrezarri arrazoi politikoengatik (Comisión por los Derechos Humanos, 1977, 30). Honela azaltzen zuen Ibérico Manuel Saint-Jean-ek, Buenos Aireseko gobernadore eta militarra zenak: “Primero, vamos a matar a todos los subversivos; después a sus colaboradores; después a los simpatizantes; después a los indiferentes y, por último, a los tímidos”. Estatu terrorismoa finkatuta zegoen jada. Desagertuak eta horien tortura eta suntsiketa sistematikoa eguneroko ekintza bihurtu ziren.

Diktadurak leku garrantzitsua eman zion eskola eta hezkuntzari, eta ejertzitoaren papera goraiatzeko saiaturiko ziren. “Barne etsaiaren” kontra indarkeriaren erabilera justifikatzeko, indioen eta *kaudillo*-en iragana ekarriko zuten gogora, egoera momentuko gerrillekin alderatzeko (Rodríguez, 2006, 253).

Testuinguru horretan kokatuko dira filmeko gertaerak. 1976ko irailaren 16an Arkatzen Gaua bezala ezagutzen dena emango zen. Lehenago esan bezala, bahiketa eta erailketa horiek La Platako hirian gauzatuko ziren, gau horretan bigarren hezkuntzako 16 ikasle (16-19 urte bitartean) ekintza horien biktima izango zirelarik (filmak 7 ikasleren bahiketa soilik irudikatzen duen arren). Horien artean Claudio de Acha, Daniel A. Rasero, Emilce Moler (bizirik iraun zuen), Francisco López Muntaner, Gustavo Calotti (bizirik iraun zuen), Horacio Hungaro, Maria Clara Ciochini, Maria Claudia Falcone, Patricia Miranda (bizirik iraun zuen), Victor Triviño eta Pablo Díaz (bizirik iraun zuen, filmaren protagonista) aurkitzen ziren (CONADEP, 1984, 284). Bahitzeko eta erailtzeko arrazoi bakarra ikasle txartelaren alde (BES) borrokatzea izango zen, militantzia politikoarekin batera, denak ikasle sindikatuko kideak baitziren. Filmeko protagonistak, hainbat hilabetetan zehar “Pozo de Banfield” izeneko zentro klandestinoan torturatuak izan ondoren betirako ‘desagertuak’ bihurtuko ziren.

2.3 ONDORENGO URTEAK ETA DIKTADURAREN AMAIERA

Zazpi urtez boterean ezarriko zen diktadurak 4 epe nabarmen izango zituen. Lehenengoa 1976tik 1980ra luzatuko zen Rafael Videlaren buruzagitasunarekin, bigarrenean Roberto Eduardo Viola izango zen 1981ra arte, ondoren Leopoldo Fortunato Galtieri 1982ra arte, eta azkenik, Reynaldo Benito A. Bignone izango zen presidente 1983ra arte. Urte horietako funtsezko ezaugarria estatu terrorismoa izango da, desagertuen auzia garatzerakoan tratatuko dena, eta Videlaren gobernuan berebiziko garrantzia izango duenak.

Videlaren agintaritzapean, lehenik eta behin, aurreko azpiatalean azaldutako neurriak ezarri eta martxan jarriko ziren. Bestalde, presidenteak hiru etapatan sailkatuko zuen bere gobernuaren. Hasierakoaren, “*Reordenamiento Básico*” izenarekin ezagutua, kaosa gainditzeko, subertsioaren aurka borrokatzeko eta botere hutsunea kontsideratzen zutena okupatzeko militarren esku hartzea emango zen. Bigarrenean, “*Consolidación y creación*”, diktadura finkatzeko jardura propioak egiten hastean zetzan, errepublikako erakundeetan ideia aldaketekin, funtzionarioen berritzearekin, ohiturak aldatuz eta abarrekin. Hirugarren eta azken etapa, “*Fundacional*”-a izango zen, erregimen demokratiko baten ezarpena bilatzen zuenak, sektore militarren, politikoaren eta sozialaren lankidetzaren ezaugarri izanik. Hortaz, sistema politikoan armada txertatzea izango zen xede nagusia (San Martino de Dromi, 1996, 774).

Ekonomian, José Alfredo Martínez de Hoz-ek Videlaren konfiantza osoa izango zuen. Epe horretan ekonomikoaren ezaugarri printzipalak merkataritzan irekidura gauzatzea eta industriaren lehentasuna bertan behera uztea izango dira. Horrez gain, inflazioarekin amaitzeko eta sektore finantzarioa indartzeko ahaleginak egingo ditu (Romero, 1994, 297).

1980ko urriaren 3an junta militarrek Viola izendatuko zuen presidente, bere buruzagitzean ekonomiak txarrera egingo zuen Lorenzo Sigaut-ek (ekonomia ministro berria) aurrera eramandako monetaren devaluazioagatik (Romero, 1994, 322). Lehendakariak ez zuen denbora asko karguan iraungo, 1981eko abenduaren 11an dimititzera behartuko baitzuten. Bere izendapena eztabaidagai izan zen militarren artean, haustura sorraraziz ejertzito eta gobernuaren artean, kargua Masserak okupatzea nahi zuten eta. Bere gobernuak gizarte irekidura bilatzeak kondenatu egingo zuen militarren aurrean, eta azkenean boterean Galtieri teniente generala ezartzea lortuko zuten. Barne gatazkek diktaduran eragindako krisialdia, 1982ko apirilean hasiko zen Malvinetako Gerrak areagotuko zuen. Uharteren subiranotasunagatik, Argentinaren eta Erresuma Batuen arteko guda armatua izan zen. Gatazka, Argentinaren porrotarekin amaituko zen urte bereko ekainaren 14an (San Martino de Dromi, 1996, 779).

Gauzak horrela, porrotak gertakizunak tropelka jarraitzea eragingo zuen, Galtieriren dimisioarekin batera (ekainaren 18an), batasunaren apurketa, botere militarren ahultasuna, gizartearen ezinegona, atsekabea eta abar gauzatuko ziren. Egoera horretan, ejertzitoak aukeratutako Bignone militarra iritsiko zen presidentziara uztailaren 1ean. Lehendakari horrekin, diktaduraren azkenengo fasea hasiko zen, eta dagoeneko, helburu nagusia nazioa

demokraziara bideratzea izango zen (San Martino de Dromi, 1996, 780). 1983ko urte amaierarako hauteskunde deialdia egingo zen, horrela, 7 urteko diktaduraren amaierara iritsiko zen 1983ko abenduaren 10ean, Alfonsín presidentearekin demokrazia berrezarri zenean (Romero, 1996, 333).

2.4 FILMAREN TESTUINGURUA:

1983tik aurrera, argentinarrak gizarteak desagertuen auziari aurre egin behar izan zion. 30.000 ziren desagertuak, eta gizartearen zati batek erantzunak eskatzen zituen. Demokraziara itzultzerakoan, intelektualei eta kultura arloari bidea zabalduko zitzaizkien berrantolaketa prozesuan jasotakoa tratatzeko. Gertatutakoari buruzko hausnarketa eta salaketa modu desberdinak eratuko ziren, eta horien artean berebiziko garrantzia izango zuen zinemagintzak. Zineak begirada berria izango du, iraganeko diktadorekin apurtzea helburu izango duenak. Iragan hurbileko testigantzak eskaintzen saiatuko da, irudien bitartez estatuaren indarkeria eta zentzugabetasuna agerian utziz. Garai horretako filmek biktimitan eta errudunetan, errepresioagile eta erreprimituetan, torturatuak eta torturatuak izango dute interesa (Ranalletti, 1999). Oro har, zabaldutako zen era berrian sortutako lehenengo pelikuletan kontzientzia kolektiboa eraikitzea bilatuko da. Aldaketen bidean gizarte konpromisoa partekatuko dute filmek, eta xedeetako bat bidegabekeria horiek ezerezean gelditu ez daitezen herria mobilizatzea izango da. Horrez gain, desagertuen familien atsekabea eta sufrimendua irudikatuko dute (Soto, 2013, 4).

Diktadura amaitu ostean egindako obrek testuinguru historiko garrantzitsua eskaintzen duten arren, orokorrean trama simple eta linealetan oinarritzen dira. Izan ere, argentinarrak gizarte gertaturikoaz jabetzen hasia zen oraindik, *shock* egoeran zegoen (batzuek izugarrikeriak sinisterra uko egin zioten). Gizarteak ezin zuen errealitatea saihestu, baina erru kolektiboa ekiditeko azalpena eratzen hasi zen. Testuinguru horretan, indarra hartuko zuen gerrillaren indarkeria estatu terrorismoaren sortzailea izatearen erantzule hartuko zuen azalpenak. Horrek azalpen erraza ematen baitzion esperientzia traumatikoari (Ranalletti, 1999). Militarrek oraindik botere asko mantentzen zuten, eta ondorioz, egia pixkanaka-pixkanaka ezagutzen joango zen bizirik irten zirenen testigantzei esker. Bizipen eta esperientzia guztiak “Nunca Más” informean bilduko ziren (Soto, 2013, 7).

Gauzak horrela, beste batzuen artean, urte horietan gaia jorratuko duten filmen artean azpimarragarriak izango dira “No habrá más penas ni olvido” (1983), “La historia oficial”

(1985), “La República perdida II” (1986) eta lan honetan aztertuko den “La noche de los lápices” (1986).

3. PELIKULAREN ANALISIA

Atal honen bitartez “La noche de los lápices” filma landuko da, hurrengo paragrafoetan bere laburpena eta eszena esanguratsuenen deskribapena eskainiz. Héctor Oliverak zuzenduriko pelikula Argentinako La Plata hirian kokatuko litzateke, 1975. eta 1976ko testuinguruan hain zuzen ere. Filmak benetako gertaera historikoak irudikatzen ditu, “Nunca Más” informean bildutakoak.

3.1 LABURPENA

Pelikula, ikasle txartelaren (Boleto Estudiantil Secundario) alde ikastetxe desberdinetako ikasleek eginiko protestekin hasten da, María Estela Martínez de Perón-en (Isabelita izenordearekin ezaguna) gobernuak txartela kendu ostean. Protesta hauek La Platako Arte Institutuan eta Eskola Nazionalean aurrera eramane ziren batez ere. Bertan, Pablo Diazek, Claudia Falconek, Maria Clara Ciocchiniik, Claudio de Achak, Daniel Racerok, Francisco López Muntanerrek eta Horacio Húngarok parte hartuko dute, “Unión de Estudiantes Secundarios” (UES) sindikatuko kideak izanik. Hemendik aurrera, fokua gazte hauengan jarriko da, beraien militantzia politikoan eta elkarren arteko harremanetan. Maiz, Claudia Falconeren etxean batzartuko dira denbora pasatzeko edota Argentinako egoeraz mintzatzeko.

Kontakizunak aurrera egiten duen heinean, Argentinan emango diren aldaketa sakonak antzemateko aukera eskaintzen da. Hala nola, 1976ko martxoaren 24an Perón-en gobernuaren kontrako altxamendu militarra eta Jorge Rafael Videlaren botere hartzea, Berrantolaketa Prozesu Nazionala bezala ezagutzen den diktadura garaia abiapuntua emanez. Estatu kolpeaz geroztik, ikastetxeetan aldaketa handiak izango dira, eta laster erregimen militarrek ikasleen aurka erabilitako bortizkeria eta errepresioa irudikatuko da. Gauzak horrela, 1976ko irailaren 16an, “grupos de tareas” (GT) izenarekin ezagunak ziren armadako militarrek gazteen etxeetan sartu ziren, armaturik eta indarkeria erabiliz gazteak bahituz. Lehendabizi, Pablo Díaz bere lagunei gertatutakoaren berri izaterakoan etxetik alde

egingo du, egun batzuk beranduago bere aitaren aholkuei kasu eginez, itzuliz eta bera ere bahitua izanik (irailaren 21ean).

Hemendik aurrera, filmaren hariak Pablo Díazen bizipenekin jarraituko du. Lehenik eta behin, torturatua izango da zentro klandestino batean informazioa lortzeko asmoarekin, geroago beste gazteak zeuden zentro klandestinora eramanez; “Pozo de Banfield” zentro klandestinora zehazki. Bertan beste gazteek bizi izandakoaren berri emango diote, egoera berbera (torturak, bortxaketak...) pairatu zutela jakinaraziz. Hilabeteak metro gutxitako gela indibidual zikinetan pasatuko dituzte, begiak estalita eta jateko ogia eta ura besterik ez dute izango. Aipagarria izango litzateke ere, amek hasiko dutela seme-alaben bilaketa, erantzunak eta familiek zuten desinformazioarekin amaitzeko nahiarekin.

Pelikula, Pablo Díaz “Poder Ejecutivo Nacional”-era (PEN) lekualdatzerakoan amaitzen da; han, preso izaten jarraituko du, baina biziko denaren ikurra bihurtuko da. Aldiz, beste gazteek ez dute bere zorzea izango, eta betirako desagertuak bihurtuko dira.

3.2 PELIKULAKO ESZENA ESANGURATSUENAK:

Behin laburpena aurkeztu dela, hurrengo paragrafoetan era laburrean eta ordena kronologikoa jarraituz, filmak agerian uzten dituen eszena esanguratsuenen inguruan hitz egingo da. Ondoren, garaiko errealitatea hobekien adierazten duten eszenak aurkeztuko dira.

Pelikula hasterakoan, ikasleak bilduta aurkitzen dira, ikasle txartela berreskuratzeko protestak eta manifestazioak antolatzen. Batzarrean zenbait gaztek hartuko dute hitza, horien artean Claudia Falconek eta Pablo Díaz-ek. Kasu honetan, garrantzia izango du Pablo Díazek esandakoa, modu ez hain argian 60. eta 70.ko hamarkadetako argentinar gizartearen ezaugarri nagusietako bat agerian uzten baitu. Pablok hitza hartzen duenean, gerrilla taldeei laguntza eskatu al zaiela komentatzen du, hau da, hein handi batean erregimen diktatorialen aurka egiten zutenei. Beraz, talde armatuek eta atzerriko mugimendu ezberdinek gazteengan zuten eragina antzematen da filmean ere.

Berebiziko garrantzia izango duen eszena bat Claudia Falcone eta Pablo Díaz protagonista izango dituen da (16. minututik aurrera). Auzo marginal eta txiro batean ikusiko dira, ume txikiei klaseak emanez eta bertoko jendea lagunduz. Horrez gain, Pablok “Juventud Rebelde” izeneko aldizkari bat emango dio andre bati, Che Guevaraz hitz egingo

duena. Gizartea aldatzeko nahia zuten, ez zuten “boleto”-a berreskuratzeko soilik borrokatzen, horren atzean gauzak aldatzeko militantzia aktiboa zegoela demostratzen baitu.

Ondoren, arreta 11. minutuan jarriko da. Claudiaren aitak telebista ikusten duen bitartean, teleberriak Tucumán-eko eskualdean ejertzitoak 6 “extremista” erail dituenaren berri emango du. Filmean epe oso laburra eta ia sekundarioa hartzen badu ere, nahikoa egiten da diktadura garaia hasi baino lehenagoko urteetan Argentinan nagusitutako zen indarkeria irudikatzeke, Isabel Perón boterean zegoela momentu hartan. Gauzak horrela, aita, Claudia eta lagunak aholkatzen saiatuko da beren inozentziaren aurrean, hurrengokoa esanez; “En política nada se regala, no se regalen ustedes tampoco”.

19. minutuan, 1976ko martxoaren 24an gauzatutako estatu kolpearen berri emango da, junta militarren lehenengo diskurtsoa aurkeztuko delarik. Lagun batek Claudia Falconen aita informatzen duen bitartean, gazteak marrazki batzuekin iraultzaz arituko dira, kontraste handia sorraraziz bi eszenen artean. Behin diktadura ezarri denean, hezkuntzan izango duen eragina agerian utziko da. Errepresio erregimena nagusituko da, ikasleak erabat kontrolaturik eta hezkuntza militarizatua ezarriko delarik. Horrez gain, ikasleak desagertzen hasiko dira, hots, filmeko protagonistak direnak. Lehenengo desagertpenak hasten direnean, ezjakintasuna izango zen nagusi gurasoen artean, Pablo Díazen aita da horren adibide. Bere semea, atxilotua izateko beldurraren ondorioz etxetik alde egiten duenean, aitak etxera bueltatzera bultzatzen du, dena ezerezean geldituko delakoan. Behin etxean, “grupos de tareas”-eko kideek bahitu egingo dute. Gertatzen zenaren aurrean ezjakintasuna aurkeztuko da gurasoen artean. 39. minutuan Pablo Díaz-en gurasoek informazio eske ofizial batengana joko dute, militarren operatiboa auzo guztia ikusi zuela azalduz, baina honek dena ezeztatuko du.

Gogorragoak egin daitezkeen eszenak, hots, torturak eta fusilamendu simulakroa dira. Torturak ageriko dira lehenik, gutxi gorabehera 44. minututik 46. minutura arte doan eszenan. Minutu horietan, Pablo zentro klandestinoan dagoela, tortura gelara eramango dute. Bertan, egiaren makinatik pasatuko dela esaten diote, baina tortura deitzeko beste modu bat baino ez da. Pablo Díaz biluztu eta mahaian etzan egiten dute eskuak zabalean lotuak dituelarik eta titiburuetan deskarga elektrikoak emango dizkiote. Torturen bitartez informazioa lortzea nahi izango zuten. Eszena honetan hainbat aspektu azpimarragarri ikus daitezke. Hasteko tortura gelan sartu orduko irratia piztu eta tango bat entzuten da bertan, hau egunerokotasunaren ikurra izan zitekeela adieraziz; hau da, tortura eta errepresioa

egunerokotasunean sartuta zegoela eta gobernuaren instrumenturik erabiliena zela. Gainera, mahaian ura botatzen ari denaren aurpegia enfokatzen dutenean, honek axolagabe aurpegia du, hots, bere lana denaren aurpegia, egunero ikusten duen zerbait bezala.

Bestalde, Pabloren buila eta kexek herriaren beldurra irudikatu lezakete. Aldi berean ordea, trajedun gizonak egiten dion galdera erantzuteko prest badago, eskua irekitzeko esaten dio, protagonistak aurpegian burko bat duen bitartean. Momentu horretan Pabloren eskua zuzenki enfokatzen dute, herriaren erresistentzia eta gobernuarekiko aurkakotasuna erakutsiz. Hala ere, torturaren minari eutsi ezinik eskua irekitzen du eta arduradunik ez duela esaten du, baina ondoren berriro eskua itxita duela agertzen da, gezurra esan diola eta herriak gobernu honen aurka jarraitzen duela irudikatuz.

Fusilamendu simulakroan (50. minututik aurrera), protagonista fusilatzerara eramango dute patiora. Bertan apaiza presoak lasaitzen saiatuko da, bekatarien mundu hau utziko dutela eta mundu berri eta hobeago batera joango direla esanez. Bitartean, presoak ikaratuta oihuka hasten dira, batzuk errezatzen, besteak errukitasuna eskatzen dute eta batek “Gora aberria!” esatera ausartzen da, erresistentzia moduan diktaduraren aurka. Baina militarrek, presoak hil ordez, tiroak airera botatzen dituzte, tortura psikologiko modura, presoek duten beldurra handitzeko eta nolabait diktadura errespetatzen ikas dezaten.

Eszena honetan garaiko gizartearen zenbait aspektu ikus daitezke. Esaterako eliza kristauak zuen garrantzia, hau da, fusilatu baino lehenago apaiz bat baitago presoak lasaitu nahian eta azken errezo bat emanez, aldi berean urduriago jartzen dituelarik, tortura psikologiko honek beldur handiagoa eragiteko asmoz. Nabaria da eszena honetako tentsioa, izan ere aldi berean soinu asko batera entzun daitezke; apaizaren errezoa, presoek errukitasun eskaerak, soldaduei ematen zaizkien aginduak, txakurren zaunkak...

Amaitzeko, pelikularen azkenengo pasarteetan amen papera goraiatuko da. Narrazioak, lehenago aipatu den gurasoen ezjakintasunarekin harremana izango du, amek seme-alaben bilaketari ekingo diote, komisaria eta administrazioetan informazioa lortzen saiatuz. Denetan erantzun berdina jasoko dute, estatuak ez dituela beraien seme-alabak bahitu. Horrenbestez, estatuaren diskurtso ofiziala gertaerak ezeztatzea izango da. Eszena horiek, lotura izango dute etorkizunean sortuko den “Madres y Abuelas de Plaza de Mayo” mugimenduarekin. Horrez gain, 80. minutuan, begi bistan geratuko da berriz ere Elizaren papera desagertuen auzian. Izan ere, amei beraien seme-alaben itzulera ia ezinezkoa dela

ikusaraziko die abade batek. Instituzioa herrialdean desagertuekin gertatzen zenaren jakinaren gainean zegoela demostratzen baitu.

3.3 ZUZENDARIA:

Puntu honetan aurkeztuko den informazioaren iturria *International Movie Database* webgunea izan da. Telebista saioen, filmen eta bideo-jokoen inguruan interneten eskuragarri dagoen datu basea da. Espezializatutako webgune hau 1990an sortu eta hasiko zen informazioa biltzen.

Aztergai dagoen filmaren zuzendaria Héctor Olivera da, 1931ko apirilaren 5ean Buenos Airesen jaiotakoa eta gaur egun bizirik jarraitzen duena. Lanbidez produktorea, gidoilaria eta zine zuzendaria, Argentina osoan eta bere belaunaldiko zuzendarien artean entzute handikoa dena.

Nerabeen lizeo militarrean egon arren, goiz hasi zen zinemagintzan esperientzia lortzen, 1950ean “Artistas Asociados Argentinos” elkartearen hasiko zen produkzio lanetan. 1958an, Fernando Ayalarekin “Aries Cinematográfica Argentina” produktora sortu eta *El Jefe* filma grabatuko zuten bien artean. Denborarekin zuzendaritza lanetan hasiko da, lehenengo filma *Psexoanálisis* (1968) izanez. Horrez gain, maila nazional eta internazionalen ospetsu bihurtuko zuten *La Patagonia Rebelde* (1974) eta *No habrá más penas ni olvidos* (1983) filmak daude; Berlineko festibalean zilarrezko hartza lortuko zutenak. Gai politikoari jarraipena emanez, 1986an zuzenduriko *La Noche de los Lápices* aurki daiteke, izugarritzko garrantzia izango zuenak garai hartako eta baita gaur egungoko argentinarrak gizaratean. Geroztik, beste hainbat obra kaleratuko baditu ere, *El caso de María Soledad* (1993) izango da arrakasta handiena lortuko duena, Argentinako Kondor zinema festibalean zilarrezko bi sari lortuz.

3.4 DATU OROKORRAK:

Filma, 1986ko irailaren 4an estreinatuko zen, bere kaleratze data ez zen ezustekoa izango. Izan ere, pelikulak jorratzen dituen gertaerak 1976ko irailean gauzatu ziren. Beraz, estreinu data hilabete berdinean ezarriko zen, 10. urteurrenarekin batera. Pelikula, María Seoane eta Héctor Ruiz Nuñez-ek idatzitako liburuan oinarritua dago, biek izenburu berdina

izango dutelarik. “La Noche de los Lápices” liburua 1986ko uztailearen 25ean plazaratu zen (Ranalletti, 1999).

Filmak La Plata hirian (Buenos Aireseko probintziako hiriburua) 1976ko irailaren 16an, diktadura garaian, ikasle batzuekin gertaturikoa eskainiko du. Narrazioak 6 desagertu eta bizirik iraungo zuen Pablo Díaz-en historia tratatuko du. Bai liburuan zein pelikulan ikasleek ikasle txartelaren alde borrokatu zuten, hortaz, beraien bahiketa ekintza horren ondorio gisa aurkeztuko da (Raggio, 2010). Xede horrekin, Pablo Díaz-en eta Jorge Falconen (Claudia Falconen neba) laguntza eta aholkuak jasoko zituzten. Filmak estatu terrorismoa agerian utzi nahi zuen, militarren basakeria demostratu. Hori dela eta, trama sinplea eta oso modu errazean antzeztuko da, biktimak eta errudunak, onak eta txarrak zeintzuk diren ikusaraziz. Gaiztoek nerabe inozente batzuk besterik ez direnak torturatzeko gai aurkeztuko dira (Soto, 2013, 13).

Istorioak gertaturikoa ahalik eta errealagoa egiten saiatuko da, horretarako, eszena asko gertakizunak benetan jazo ziren lekuetan grabatuko dira, La Platako Arte Ederretako institutuan eta desagertu batzuen etxeetan adibidez. Horrez gain, musikaren aldetik, sarritan tangoa edota ‘Sui Generis’ Argentinako rock taldearen “Rasguña las piedras” eta “Canción para mi muerte” abestiak entzungo dira, 1973an argitaratutakoak eta gazteen artean entzute handia izan zutenek.

3.5 ERAGINA ETA GARRANTZIA:

Denborarekin, Héctor Oliveraren obra Hego-Amerikako herrialdearen 1976-1983 urteetako historiografian klasiko bat bihurtu da. Gaur egun belaunaldi berriei iragana transmititzeko erabilia izaten jarraitzen du. Diktadura militarrek jendea isilaraztea bilatzen zuten, beraien memoria ezabatu eta herria historia gabe bizitzera kondenatzeko nahiarekin. Horrenbestez, filmak paper oso garrantzitsua jokatu zuen errepresioegileen bertsio faltsua salatuz eta gizarteari errealitatea irudikatzerako orduan. Ikuslearekiko helburu pedagogikoa izango zuen (Soto, 2013, 7).

Diskurtso ofiziala falta zenean, zineak diktaduraren eta horren aurrekarien inguruan gizarte osoan hedatuko zen diskurtsoa eraiki zuen, gaur egunera arte helduko dena. Obra horiek beraz, oinarrizkoak eta behar beharrezkoak izan ziren memoria indibidualaz gain

memoria kolektiboa ere bizirik mantentzeko, eta gizateriaren aurka egindako krimen guzti horiek errepika ez zitezen (Soto, 2013, 24).

Hainbat izango dira “La noche de los lápices” filmaren ospea, oihartzuna eta garrantzia azaltzen duten arrazoiak. Zentro klandestinoak irudikatuko zituen lehenengo filma izango zen, eta momentura arte zenbait desagertuen (bizia mantentzea lortuko zutenek) bizipenak soilik zirenak pantailara eramango zituen, Pablo Díaz-en testigantzari esker (Raggio, 2011, 3). Gertatutako guztia onartzea eta imajinatzea zaila egiten zenean, filmak behingoz “ikustea” ahalbidetuko zuen.

Bere ondarea denboran zehar iraun izana Pablo Díaz-en testigantzari, María Seoane eta Héctor Ruiz Núñez-en liburuari eta filmari esker izango litzateke. Gainera, gertaeren data oroitzapen eguna ezarri da hezkuntza arloan, ikasleen eta gazteen artean beren historia bizirik mantentzea bermatuz. La Platako hirian ohikoak izaten dira ekintzak eta manifestazioak egun horretan.

Gai dramatikoa modu sinplean garatuta dago, ulerterraza da jende guztiak gaiztoak eta onak erraz identifikatzeko. Horrez gain, testuinguru politikoari ez zaio arreta askorik jartzen, garaian sor zitekeen iskanbila ekiditeko asmoz (Raggio, 2011, 4). Protagonistak gazteak diren heinean, eta beren borroka ikasle txartelagatik izatea, ez iraultzagatik edota sozialismoa hedatzeko, enpatia sorrarazi zuen ikuslearekiko eta bere arrakasta ahalbidetu.

Amaitzeko, lehen esan bezala, berebiziko garrantzia izango dute eskolek, ezinbestekoak izan baitira kontakizun hori gizarte mailan irauteko. Gehiengoak pelikula eskolan ikusi baitu, edo horren berri eskolan izan du (Feld, 2010, 8). Hortaz, pelikulak ez zuen arrakasta estreinatzerakoan (1986an) soilik lortuko, izan ere, gaur egun bere indarra urtez urte transmititzen jarraitzen baita hezkuntzan, diktaduraren ondorioak salatzen. Filma beharrezkoa egin da Argentinako gizartean, etorkizuneko gazterian jasandakoaren oroitzapena mantentzeko (Raggio, 2010).

4. GAZTERIA ETA MILITANTZIA POLITIKOA

Atal honetan obrak lantzen duen gai nagusietako batean jarriko da arreta, gazterian hain zuzen ere. Hori dela eta, munduan zein herrialdean bertan batez ere eman ziren mugimenduek 70. hamarkadako Argentinako gazteengan izan zuten eragina aurkeztuko da, diktaduran militarren indarkeriaren biktima eta desagertuen kopuru handienetarikoa izatea

ulertarazten saiatzeko. Horrez gain, diktaduren aurrean gazteek totalitarismoari erantzuteko erabili zituzten bide ezberdinez ere hitz egingo da.

60. eta 70. hamarkadak historiara pasatuko ziren gazteen protesta eta mugimendu garaia izateagatik nazioarte mailan. Gazte kultura nazioartekotu zen garaian, Argentinan 1955. eta 1976. urteen artean gazte identitate propioa sortuko da (ezaugarri propioekin batera). Orokorrean, gazteria kultura eratu zen epe horretan, kultura kontsumitzailea eta iraultza ametsak zituenak (Piñeiro, 2009, 3).

60. hamarkadatik aurrera, gazteria talde independentea bihurtu zen mendebaldeko gizartean. Argentinan, hamarraldi hasieran nagusi egingo zen joera inertziarena izan arren, bigarren erdialdetik aurrera kontrakultura berria sortuko zen, matxinada ispiritua hedatzen hasiko zuenak. Aldaketa hori Onganía-ren estatu kolpearekin (1966) batera etorriko zen, errepresio eta zentsuraren aurka borrokatuz. Politikak garrantzia irabaziko zuen Kubako Iraultzaren presentziarekin eta Che Guevararen figura karismatikoarekin. Gauzak horrela, gazteria susmagarria bihurtu zen militarren gobernuarentzat, sexuaz, moralaz eta politikaz zuten kontzepzioa ziren arazoa. Gainera, ez modu hain argian, baina jada infiltrazio marxistaren beldur agertuko ziren boterea partekatzen zuten kideek. Errepresio sistema martxan zegoen (Pujol, 2003, 314).

Gazteen papera hazi egingo zen, konpromisua eta elkertasuna aurkeztu zuten herrialdeak bizi zituen arazoekin. Eta 1968ko Frantziako maiatzak izan zuen oihartzunaren ondoren, unibertsitateetan barne eztabaida sortu zen erreforma eta iraultza prozesuen inguruan. Beste sektore popularrekin batera aldaketa sistema baten beharra itxura hartzen joan zen (Gordillo, 2003, 344). Testuinguru horretan, *El Cordobazo*-ko gertaerak emango ziren 1969ko maiatzean, Juan Carlos Onganía-k eratutako sistema politiko-instituzionala deseginiko zuenak. Protestak unibertsitateko ikasleek Kordoba hirian hasiko bazituzten ere, pixkanaka beste hiri batzuetara hedatuko ziren sektore automobilistakoko langileen laguntzarekin. Manifestatzaileek greba orokorrera deitu eta hiri erdigunera sartu ziren autobusak eta kotxeak errez, 48 orduz hiria ikasleen (beste gizarte talde batzuekin) eta polizien arteko bataila eremua bihurtu zen. Mugimenduak Frantzian gertatutakoarekin antzekotasunak bazituen ere, horren berezitasun nagusia barne gatazkaz eta atsekabeaz tratatuko zela izango litzateke. Gobernuarekiko zegoen mesfidantza, errepresioa unibertsitatean, joera inflazionistak ekonomian eta abarrek kalte handia eragingo zuten, protesta horien sorburu garrantzitsua izanez (Azcona, 2010, 60).

1969-1970.urteak protestarenak izan baziren, 1971tik 1973ra ekintza politikoetan zentratu izana azpimarratu behar da. Jarduera horiek bide ezberdinak hartuko zituzten protagonisten eta pentsaera politikoen arabera. Kordobako gertaeren eta “Montonero”-en eskutik Aramburu lehendakari ohiaren hilketaren (1970eko ekaina) ostean, gerrilla taldeek beraien proiektura gazteak erakartzeko kanpaina hasiko zuten. Horrela, gizarte aldaketaren desio handia zuten gazte askok bide armatua hautatuko zuten ezarritako sistemaren kontra egiteko, “Montoneros”, ERP, FAR eta FAP-eko militante bihurtuz esaterako (Azcona, 2010, 138). Gazteek militantzia politiko iraultzailearekin bat egiten hasiak ziren. Lehen ikasle jardueren alde borrokatzera mugatzen zen militantea, orain auzo eta herrien alde berdina egitera pasatuko zen, Argentina eredu sozialista iraultzailea eta marxista bihurtzeko asmoz (Gordillo, 2003, 389-390). Hala ere, 1974.urtera arte ezkerreko talde armatuek peronismoaren babesa jaso bazuten ere, José Ignacio Rucci-ren sindikalistaren erailketaren ondoren babes hori bertan behera geratuko zen, berriz ere klandestinitatera pasatuz eta Martínez de Perón-en gobernu atzetik izango zuelarik.

Kontestu horretan, garrantzia izango zuten adierazpen kulturek, askok artearen bidea aukeratuko baitzuten protestatzeko baliabide gisa. Bertan *rock*-a nabarmenduko zen errepresalia sistema diktatorialaren aurkako manifestu kultural bezala. *Rock and roll*-a gazteen modernitatearen ikurra bihurtuko zen, *rock* nazionala eratuz. “Los Gatos”, “Almendra”, “Pescado Rabioso” eta “Sui generis” (azkenengo honen bi abesti filmean erabiliak izango dira) taldeek ospe handia lortuko zuten horiengan (Secul, 2014, 46). Ez zen soilik musika, politikarekin inplikaturik zegoen gaztearen irudia eratzen hasia zen. 70.hamarkadara arte luzatuko zen joera horrek, subkultura propioa sortu zuen gazteengan, “inertziatik” “iraultza” mezuetara pasatuz. Horren adibide, 1966an Moris abeslari argentinarraren abesti bat izango zen: “*Rebelde me llama la gente,/ Rebelde es mi corazón,/ soy libre y quieren hacerme,/ esclavo de una tradición*” (Pujol, 2003, 310).

Kontrakultura deritzon mugimendu horrek, esan bezala, Onganía-ren zentsura bizi izan zuen, ez baitzen indiferente geldituko egoera politikora. Horrenbestez, lehenagoko garaietako inozentzia karakteristikoa amaituta zegoen, orain kontsumo gizartea eta burgesen bizitza zalantzan jartzen ziren. Pentsamolde haustura horiek hainbat arlotara hedatuko ziren, gazteriak paper oso nabarmena hartuko zuelarik hamarkada horretan, bai kulturalki bai politikoki. Musikari, abangoardia artistak, militante politikoak, fikzio idazleak eta abar, irrika horien ahotsa izango ziren. Oro har, kontzientzia bereganatzea eman zen haiengan, iraultza ametsak piztuz eta militantzia politikoa areagotuz, ondorio larriak izango zituenak

1976ko altxamenduak ekarriko zuen diktadura zehar, gobernuaren ‘etsaia’ bihurtuko baitziren.

5. DESAGERTUAK

Jarraian filmak aztertzen duen beste gai nabarmenaren azterketa eskainiko da, desagertuena zehazki. Totalitarismoa eta errepresioa, desagerrarazteko erabilitako metodologia eta prozesuak izandako ondorioak eta epaiketak agerian utziko direlarik.

5.1 TOTALITARISMOA ETA ERREPRESIOA

Azkenengo diktadura argentinarraren xede nagusia fisikoki oposizio guztiarekin amaitzea izan zen. Betirako isilaraztea bilatzen zuten, eta horretarako *corpus* ideologikoa sortuko zuten, gurutzean eta ezpatan oinarrituak (Azcona, 2010, 138). Sistemak bazuen aurrekari garrantzitsua, “Alianza Argentina Anticomunista” (A Hirukoitza), eskuin muturreko talde paramilitarra. Ejertzitoko, poliziako eta peronismoko zenbait kidek sortuko zuten 1973an. Taldeak “Montonero”-ak bezalako ezkerreko taldeen aurka egiteaz gain, ezkerreko artistak, militanteak, sindikalistak, intelektualak eta abar erailteza izango zuen helburu.

Paramilitar hauek estatuaren laguntza izan bazuten ere, Videlak boterea eskuratzean apurketa nabaria egongo da aurreko urteekin. Estatu terrorismoa ezarri eta justifikatzeko diskurtso ofiziala eratuko da, gerra hitza erabiliz errepresioa ezkutatu eta desagertuak bi bandoen arteko borrokaren ondorio gisa justifikatuko ziren. Gainera, etsaiari gizartearen arazo guztiak leporatuko zaizkio, eta komunikabideen kontrol zorrotza egingo da zentsura inposatuz eta kasuak ezkutatuz. Diskurtso hori herrialde osoan inposatuko zen, “la guerra contra la subversión” (Bravo, 2015, 74). Militarrek desagerpen politika beharrezkoa ikusiko dute talde armatuen aurka borrokatzean, galdutako bakea lortu ahal izateko.

5.2 DESAGERTUAK

- *Metodologia*

Diktadura garaian desagerpen erregimen estatala finkatuko zen, eta desagertuak gobernu militarren ardatzetako bat bihurtuko ziren. 1930ean militarrek politikan hasitako esku hartzearekin, preso politikoak torturatzea ohikoa egingo zen arren, 1976ko diktadurak martxan jarritako prozesua guztiz desberdina izango zen. Etsai guztiak suntsitzeko asmoak, erabilitako metodo klandestinoak eta krimenen autoreek zuten errua ezeztatzeak diferentzia sortuko zuen aintzineko errepresio politikoan erabilitako metodologiarekin (Crenzel, 2007, 161).

30.000 desagertuen artean orokortuko zen perfila gazte, ikasle, sindikal eta langile borrokalari politikoena izango zen. Iraultzaileak, uste sendoekin, gizarte aldaketa ametsekin, baina armagabetuak estatuaren indarkeriaren aurrean. Desagerpenen kopuruaren %76,6a diktaduraren lehenengo bi urteetan gertatuko ziren, Videlaren agindupean.

Erabilitako metodologiari dagokionez, esan bezala bahiketan, desagerpenean eta delitua ezeztatzean zetzan. %62a beren etxeetan bahitzen zituzten gauetan beste testigu batzuen aurrean, kalean bahitutakoak %24 izanik. Operatiboa armatutako 5 edo 6 pertsonak osatzen zuten normalean (“Grupo de Tareas” edo “Patota” izendapenekin ezagunak), etxeetan zein auzoan beldurra hedatzea bilatzen zuten argia moztuz eta kotxe presentzia handiarekin (CONADEP, 1984, 9-10). Behin subertsioagatik akusatutakoak zentro klandestinoetan zituztela, tortura fisiko eta psikologikoekin hasten ziren informazioa eta beste batzuen ‘izenak’ lortzeko. Horrez gain, zentro horietan begiak estaltzen zizkieten, eskuak lotuta, hitz egitea debekaturik zeukaten, higiene falta, mugimenduak mugatuak...eta abar. Guzti horrek zentzumen munduaz at geratzea ahalbidetzen zuen. Bizi baldintzak jasanezinak ziren. Bahituak modu askotan erail zituzten, torturen eraginez, urperatzeen ondorioz, fusilamendu masiboak, *shock* elektrikoagatik, edota itsasora botatzerakoan (CONADEP, 1984, 157).

Bestalde, desagerpenek atsekabea eta ezjakintasuna sorrarazten zuten familiarren artean. Gorpu faltak beldurra eragiten zuen, eta estatuak errua ezeztatzerakoan zalantzak eta ziurgabetasuna eratzen zuen, maiz horietako asko bahiketen ikusle izan baziren ere. Desagertuak ehorztea galaraztea diktaduraren ezaugarri bihurtuko zen, familien dolua luzatuz eta tortura psikologikoa sortuz (Crenzel, 2007, 165).

- *Salaketak*

Desagertuen berri 1976ko abuztuan “Montoneros” taldearekin lotura zuen Rodolfo Walsh-ek sorturiko “Agencia de Noticias Clandestina”-k eman zuen, beraien gatibutasunaz eta ondorengo desagertuen armadaren eskutik. Urte berean, azaroan, zenbait denuntzia jaso ostean “Amnistía Internacional”-ek herrialdea bisitatuko zuen, erailketa politikoak, torturak eta desagertuen salatu zituen (Crenzel, 2007, 168).

Horiez gain, erregimenaren aurkako salaketak areagotu egingo ziren 1977an. Desagertuen salatzeke Madrilen “Comisión Argentina por los Derechos Humanos” osatzen zuten exiliatuek “Argentina: proceso al genocidio” liburua argitaratuko zuten. Bestalde, apirilean Maiatzaren Plazako Amen mugimenduaren lehenengo ekintzak hasiko ziren. Azkenik, salaketei erantzuna emateko asmoarekin, 1979ko irailean “Comisión Interamericana de Derechos Humanos de la OEA” bertaratuko zen herrialdean, militarrekin, politikariek, kazetariek, autoritate erlijiosoekin, enpresari eta abarrekin hitzartu eta zenbait komisaria eta dependentsia militarrek aztertuko zituzten. Informean erru osoa armadako goi-mailako karguei leporatuko zitzaizkien (Crenzel, 2007, 169-170). Hala eta guztiz ere, hein handi batean, gizarte eskubideen urraketen aurkako salaketa horiek isilaraztea lortuko zuen erregimenak.

Gainera, gertaerak argitzeko gizarte nahia eta eskaera hazi egin ziren, gizarte eskubideen alde egiten zuten elkarteei laguntza eskainiz. Laguntza eta babesa 1982an eginiko Bizitza Martxan agerian geratuko zen, 100.000 parte-hartzaileekin. Lelo nagusiak honako hau adierazten zuelarik, “Juicio y castigo a todos los culpables” (Crenzel, 2017, 233). Testuinguru horretan, azpimarragarriak izango dira zentsura eta diskurtso ofizialaren kontra eman ziren adierazpen kulturalak. Garrantzitsuenetako bat diktaduraren amaiera aldera emango zen, 1983ko irailean “El Siluetazo” izenarekin ezagutzen dena, Maiatzaren Plazako Amen hirugarren erresistentzia ibilaldian giza neurriekin eginiko 30.000 siluetakin agertuko ziren, xedea desagertuak ikuskatzea zen (Bravo, 2015, 77).

5.3 ONDORENGO URTEAK: EPAIKETAK

1983ko abenduan ezarritako presidente berriak, hau da, Raul Alfonsín-ek, desagertuen ikertzeko CONADEP komisioa eratuko zuen 1983ko abenduaren 15ean. Komisioaren xedea diktadura militarrean zehar gauzatutako gertaerak argitzea izango zen.

Horrela, familiarren eta bizirik irten zirenen testigantzak, desagertuen kopurua eta zentro klandestinoen deskribapena idazlan ofizialean bilduko ziren, diskurtso ofizial berria osatuz. Ikerketa batzordeak testigantza guzti horiek “Nunca Más” liburuan batuko zituen (Crenzel, 2007, 173).

Junta militarren epaiketak, 1985ean hasi eta abenduan amaituko ziren. Epaiketen ezaugarriak orokorrean prozesu laburra izatea, auzipetu gutxirekin eta zigor gogorra bilatzea izan ziren. Abenduan aurkeztutako sententziak hiru junta militarreko kideak kondenatu zituen, Videlak betibizirako kondena jasoko zuelarik. Eraitza horiekin, Alfonsin-ek epaiketekin amaituko zuen, horretarako 1986an Amaierako Puntuko legea bultzatuz. Hala eta guztiz ere, 1990an Menem presidentek indultuak eskainiko zituen herriaren iritziaren aurka. Azkenik, 2003an Néstor Kirchner-en agindupean Amaierako Puntuko legea bertan behera utzi zuen, epaiketak jarraitzea ahalbidetzeko (Crenzel, 2017, 241).

6.ONDORIOAK

Filmaren analisia ikusita, hainbat ondorio atera daitezke. Izan ere, pelikulak testuinguruko edo bizitakoari buruzko alderdi garrantzitsuak lantzen ditu, baina era berean, alderdi horiek hein batean aldarazten ditu. Gainera, nabarmenak izan ziren beste gertaera batzuk ez ditu jorratzen.

Esan bezala, diktadura garaian hainbat izango ziren gobernuaren aurka altxatu ziren ahotsak, horien artean Maiatzaren Plazako Amen eta Amonen papera goraiatu beharko litzateke. Hala ere, ez zen joera orokorra izango, eta testuinguru horretan izugarritzko garrantzia izango zuen film honek. Izan ere, 1986. urtean, gertaeren inguruko eztabaida eta hausnarketarako bidea zabalduko zuen (diktaduraren bukaeratik 3 urte soilik pasa ondoren), eta hori, ezinbestekoa izan zen memoria eta kontzientzia kolektiboaren eraikuntzan. Egindako ekarpena ez da soilik arlo horretara mugatzen, hots, eszenen errealismoa eta zentro klandestinoen deskribapenek ere berebiziko garrantzia dute, bizirik iraun zutenen testigantzak oinarri izanik, irudimen kolektiboa garatzea ahalbidetuko zutelako.

Baina hala eta guztiz ere, pelikulak oso trama sinplea aurkezten du, testuinguru politikoa eta gazteriaren egoeraren historia era nabarmenean mugatuz. Esparru asko ez dira guztiz jorratzen, edota airean uzten dira. Alde batetik, marko politikoa ez da garatzen eta era laburrean azaltzen da 1976ko estatu kolpea. Horrek bizi zen gizarte tentsioa ulertaraztea

zailtzen du, izan ere, mobilizazioak eta protestak altxamendua burutu baino lehen hasten dira, eta gazteak boterean dagoen gobernuarekin arazoak dituztela nabarmena egiten da hasieratik. Bestalde, gazteen militantzia politikoa ezkutatu edo baztertzen da, beraien borroka ikasle txartelera murrizten delarik, aztertu den moduan, errealitatea bestelakoa bazen ere. Horrez gain, benetako gertaeren biktima 16 gazte izan baziren ere, filmean soilik 10 gazteren istorioa agertuko da, bizirik iraun zuen Emilce Moler-en kritika eragingo zuenak.

Gauzak horrela, filmari bereziki gehiegizko egiazkotasuna eta zilegitasuna ematea ez da komenigarria, baina gertaerei buruz jakinaren gainean egoteko edota hasierako hurbilketa egiteko kontuan izatea baliotsua eta interesgarria izan daiteke. Ikuspuntu horretatik adibidez, garrantzitsua eta ezinbestekoa da belaunaldiz belaunaldi argentinar nerabeei pelikula eta bere mezua helarazten jarraitzea; ondare historikoaren erakusgarri gisa.

Gizartean historia hedatzeko bide ezberdinak daude, eta azkenengo mendeetan zinea nagusitu da; masetara iristeko indarra dauka eta. Gainera, bere mezua transmititzeko erraztasuna duen heinean, gertaera historikoen ezagutza zabaltzeko baliabide bikaina izan daiteke. Kasu hau, nazio osoan izandako arrakasta eta eraginarekin frogatzen da. Horrenbestez, zenbait datu edota gertaera faltan botatzen badira ere, oro har, “La Noche de los Lápices” filmaren baliagarritasuna eta kalitatea goretsi behar dira.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

1. Azcona, J. M. (2010). *Violencia política y terrorismo de Estado en Argentina. Del totalitarismo de José Uriburu (1930) a la dictadura militar (1976-1983)*. Una visión bilateral. Madril: Editorial Biblioteca Nueva.
2. Bravo, N. (2015). Acciones políticas y experiencias artísticas de reclamo por desaparición forzada de personas en Argentina . *Economía y Sociedad* 19 (32), 71-85. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5371168> -tik berreskuratua.
3. Comisión Argentina por los Derechos Humanos (CADHU). (1977). *Argentina: Proceso al genocidio*. Madril: Elías Querejeta.
4. Comisión Nacional sobre la Desaparición de Personas (CONADEP). (1984). *Nunca más*. Buenos Aires: Eudeba.
5. Crenzel, E. (2007). Dictadura y desapariciones en Argentina: Memoria, conocimiento y reconocimiento del crimen. *Intersticios: Revista Sociológica de Pensamiento Crítico*, 1 (2), 159-178. <http://www.intersticios.es/article/view/1107/863> -tik berreskuratua.
6. Crenzel, E. (2017). La verdad en debate. La primacía del paradigma jurídico en el examen de las violaciones a los derechos humanos en la Argentina. *Política y sociedad*, 54 (1), 229-248. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6241327> -tik berreskuratua.
7. Feld, C. (2010). Imagen, memoria y desaparición: Una reflexión sobre los diferentes soportes audiovisuales de la memoria. *Aletheia: Revista de la Maestría en Historia y Memoria de la FaHCE*, 1 (2), 1-16. http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.4265/pr.4265.pdf -tik berreskuratua.
8. Gordillo, M. B. (2003). Protesta, rebelión y movilización: de la resistencia a la lucha armada, 1955-1973. D. James (koord.), *Nueva historia Argentina. Violencia*,

- proscripción y autoritarismo (1955-1976)* (329-380 or.). Buenos Aires: Editorial Sudamericana.
9. Piñeiro, E. (2009, urria). Paz, amor y rock and roll. Cultura y contracultura juvenil en la década del '60. S. Elizalde, V. Manzano, K. Felitti (koordinatzaileak). *Juventud: Cultura, Política y Sexualidad en la Argentina de la segunda mitad del Siglo XX*. XII. Jornadas Interescuela de la Universidad Nacional de Comahue, Departamentos de Historia, Río Negro, Argentina.
 10. Pujol, S. A. (2003). Rebeldes y modernos. Una cultura de los jóvenes. D. James (koord.), *Nueva historia Argentina. Violencia, proscripción y autoritarismo (1955-1976)* (281-328 or.). Buenos Aires: Editorial Sudamericana.
 11. Raggio, S. M. (2010, abendua). Acerca de los silencios de narrar el terrorismo de Estado. Un análisis en torno al relato de la Noche de los Lápices. M. Prati (Presidentzia). *Debates y perspectivas sobre Argentina y América Latina en el marco del Bicentenario. Reflexiones desde las Ciencias Sociales*. UNLP-ko VI. Soziologia Jardunaldiak, Departamento de Sociología de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, La Plata, Argentina.
 12. Raggio, S. M. (2011). Los relatos de la Noche de los Lápices. *Aletheia: Revista de la Maestría en Historia y Memoria de la FaHCE*, 1 (2), 1-8. http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/art_revistas/pr.4815/pr.4815.pdf -tik berreskuratua.
 13. Ranalletti, M. (1999). La construcción del relato de la historia argentina en el cine, 1983-1989. *Film-Historia*, 9 (1), 3-15. <http://revistes.ub.edu/index.php/filmhistoria/article/view/12365/15133> -tik berreskuratua.
 14. Rodríguez, L. (2009). La historia que debía enseñarse durante la última dictadura militar en Argentina (1976-1983). *Antítesis*, 3 (2), 227-256. <http://hear.unr.edu.ar/wp-content/uploads/2014/12/La-Historia-que->

[deb% C3% ADa-ense% C3% B1arse-durante-la-% C3% BAltima-dictadura-militar-en-Argentina-1976-1983.pdf](#) -tik berreskuratua.

15. Romero, L. A. (1994). *Breve historia contemporánea de la Argentina*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.
16. San Martino de Dromi, M. L. (1996). *Argentina Contemporánea de Perón a Menem*. Buenos Aires: Ediciones Ciudad Argentina.
17. Secul, C. (2014). Sólo quiero mi verdad gritar. Tensión identitaria en un marco de transición democrática. *Revista Argentina de Estudios de Juventud*, 8, 44-57. Dialnetetik berreskuratua, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6171676>.
18. Soto, M. (2013). De la incertidumbre a la certeza, de la negación a la representación: imágenes que narran la violencia y la “guerra sucia” de la apropiación de menores en Argentina durante el último gobierno *de facto*. *Chronica Mundi*, 6-8 (1-3). http://www.chronicamundi.org/abs/ChronicaMundi_6-8_Abstracts.pdf -tik berreskuratua.
19. Svampa, M. (2003). El populismo imposible y sus actores, 1973-1976. D. James (koord.), *Nueva historia Argentina. Violencia, proscripción y autoritarismo (1955-1976)* (381-438 or.). Buenos Aires: Editorial Sudamericana.